


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,5 hazi dira 2022ko ekainean

Urte arteko terminoetan, 2022ko ekainean, 2021eko ekainarekin alderatuta, kostuak % 11,5 igo dira.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea % 0,5 igo da 2022ko ekainean aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Aurreko urteko hil beraren aldean, kostuak % 11,5 handitu dira.

Obra zibileko kostuak % 1,8 igo dira hil arteko terminoetan, eta Eraikuntzaren sektorean % 0,3. 2021eko ekainaren aldean, prezioak % 16,9 igo dira Obra Zibilean eta % 10,3 Eraikuntzan.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean (2022ko maiatza), **lehengaien** kostuak % 0,7 igo dira, eta **eskulanaren** kostuak, berriz, egonkor dirau (% 0,0). Urte arteko terminoetan, lehengaien kostua % 13,3 igo da eta eskulanarena % 5,8.

Eraikuntzaren sektoreko lehengaien kostuak % 0,3 egin du gora hilabete batetik bestera, eta Obra Zibilekoak, berriz, % 2,2. Urte arteko bilakaeran, Eraikuntzako lehengaien kostuak % 11,7 hazi dira eta Obra Zibilekoak % 20,4.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Ekaina 2022

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	121,2	0,5	11,5
Eraikinak	120,1	0,3	10,3
Obra zibila	126,2	1,8	16,9
Lehengaiak	122,7	0,7	13,3
Eraikinak	121,2	0,3	11,7
Obra zibila	129,1	2,2	20,4
Laneskua	116,7	0,0	5,8

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2022ko Uztailaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektoreak kontsumituriko lehengaien prezioetan honako sektore hauetan izan ziren igoera handienak 2022ko ekainean, 2021eko ekainaren aldean: *Petrolioia fintzea* (% 85,4 gora), *Energia elektrikoa eta gasa* (% 61,5) eta *Metalurgia* (% 40). Lehengaien prezioetan hazkunde neurritsuenak, aitzitik, honako sektore hauek izan dituzte: *Makineriaren fabrikazioa* (% 3,9), *Material elektronikoa* (% 4) eta *Material elektrikoa* (% 5,0).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Ekaina 2022

	m / m-12
Ezmetalezko meak	8,3
Zuraren eta korbxoaren industria	23,6
Petrolioia fintzea	85,4
Industria kimikoa	25,8
Kautxua eta plastikoa	7,8
Produktu mineral ez-metalezkoak	11,2
Metalgintza	40,0
Metalezko artikulua	13,0
Material elektronikoa	4,4
Material elektrikoa	5,0
Makineriaren fabrikazioa	3,9
Altzargintza	5,2
Energia elektrikoa eta gasa	61,5

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2022ko Uztailaren 26a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62